

Bidaiarien sarrerak %9 gehitu ziren 2005eko uztailan

Gaualdiak %10 gehitu ziren aldi berean.

2005eko uztailan, 190.882 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 15.000 sarrera pasa gehiago, hau da, %9 gehiago, Eustatek eskainitako datuen arabera. Bidaiari-sarrek bilakaera positiboa izan zuten hiru lurraldeetan: Bizkaian %17ko gehikuntza handia izan zen, Gipuzkoan %5ekoa eta Araban neurritsuagoa, %2koa; guztiak aurreko urteko hil berarekin alderatuta.

Euskal AE osotara hartuta, Estatutik etorritako bidaiarien sarrerak %8 gehitu ziren 2005eko uztailan; Bizkaian %20 gehitu ziren, Araban %4 eta Gipuzkoan aurreko urteko maila berean mantendu ziren (%0,0). Atzeritik etorritakoak %10 gehitu ziren Euskal AE osoan: %12 gehitu ziren Gipuzkoan eta %11 Bizkaian, baina gutxitu egin ziren Araban (%-3).

Estatuko bidaiarien artean, autonomia-erkidego gehienetakoak gehitu ziren. Gehiago izan ziren Kataluniatik, Madrildik, Andaluziatik, Aragoitik, Asturistik, Gaztela-Mantxatik, Galiziatik eta Nafarroatik etorritakoak. Murriztu egin ziren, aldiz, Kantabrietatik, Kanarietatik eta Valentziako erkidegotik etorritakoak. Atzerriko bidaiarien artean, igo egin ziren, besteak beste, Frantziatik, Alemaniatik, Holandatik, Portugaldik, Erresuma Batutik eta Iberoamerikatik etorritakoak. Murriztu egin ziren batez ere, Belgikatik, Italiatik eta AEB-Kanadetatik etorritakoak.

2005eko uztailan 373.626 gaualdi erregistratu ziren, hau da, %10eko gehikuntza eta 33.000 gaualdi pasa gehiago, aurreko urteko uztailan baino. Gaualdiek ere urte arteko bilakaera positiboa izan zuten hiru lurraldeetan: hazkunderik handiena Bizkaian (%20) izan zen, eta neurritsuagoak Gipuzkoan (%4) eta Araban (%3).

Batez besteko egonaldia %1 luzatu zen, aurreko urteko 1,94 egunetik 1,96ra. Hazkunde hori Bizkaian (%3) eta Araban (%1) eman zen, Gipuzkoan ez baitzen aldaketarik izan (%0,0).

Plazakako zein gelakako betetze-maila %7 gehitu ziren, Euskal AE osotara hartuta. Plazakako betetze-maila hazi egin zen Bizkaian (%14) eta Gipuzkoan (%5), eta Araban egonkortu egin zen (%0,0).

Nekazalturismoa: gehitu egin ziren bidaiarien sarrerak (%12) eta gaualdiak (%13)

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 11.956 bidaiari-sarrera zenbatu ziren joan den uztailan, aurreko urteko hil berean baino %12 gehiago: %19 ugaritu ziren Araban, %13 Gipuzkoan, eta %7 Bizkaian. Estatuko bidaiariak %10 gehitu ziren eta atzerrikoak %22, 2004ko uztailaren aldean.

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan egindako gaualdiak 39.469 izan ziren uztailean, 2004ko hil berean baino %13 gehiago. Urte arteko hazkunde handiak izan ziren Gipuzkoan (%21) eta Araban (%14), baina apur bat murriztu ziren Bizkaian (%-1).

Bidaiariko batez besteko egonaldia %1 hazi eta aurreko urteko 3,28 egunetik joan den uztaileko 3,30era luzatu zen, Euskal AE osoan.

Plazakako eta gelakako betetze-maila ere %4 igo zen Euskal AE osoan. Indize bien hazkundeak Araban eta Gipuzkoan izan zuen eragina, baina Bizkaian ez, indizeek bilakaera negatiboa erakutsi baitzuten.

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/spanish/indice.asp

1. taula: hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	07/2005	%	07/2004	%	□□	07/2005	%	07/2004	%	□□	07/2005	%	07/2004	%	□□	07/2005	%	07/2004	%	□□
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	373.626	100	340.108	100	10	49.854	100	48.361	100	3	147.949	100	123.261	100	20	175.823	100	168.486	100	4
Estatukoak	247.310	66	225.068	66	10	38.175	77	36.533	76	4	93.564	63	77.860	63	20	115.571	66	110.675	66	4
Atzerrikoak	126.316	34	115.040	34	10	11.679	23	11.828	24	-1	54.385	37	45.401	37	20	60.252	34	57.811	34	4
Hiriburua	229.736	61	207.574	61	11	36.505	73	34.962	72	4	96.641	65	82.768	67	17	96.590	55	89.844	53	8
Kostaldea	55.508	15	52.501	15	6	-	-	-	-	-	19.536	13	17.752	14	10	35.972	20	34.749	21	4
Barnealdea	88.382	24	80.033	24	10	13.349	27	13.399	28	0	31.772	21	22.741	18	40	43.261	25	43.893	26	-1
BIDAIARIEN SARRERAK	190.882	100	175.155	100	9	27.357	100	26.823	100	2	81.445	100	69.829	100	17	82.080	100	78.503	100	5
Estatukoak	125.472	66	115.679	66	8	20.098	73	19.361	72	4	53.873	66	45.066	65	20	51.501	63	51.252	65	0
Atzerrikoak	65.410	34	59.476	34	10	7.259	27	7.462	28	-3	27.572	34	24.763	35	11	30.579	37	27.251	35	12
Hiriburua	116.164	61	107.824	62	8	19.151	70	18.124	68	6	51.456	63	48.069	69	7	45.557	56	41.631	53	9
Kostaldea	25.403	13	24.508	14	4	-	-	-	-	-	10.794	13	9.718	14	11	14.609	18	14.790	19	-1
Barnealdea	49.315	26	42.823	24	15	8.206	30	8.699	32	-6	19.195	24	12.042	17	59	21.914	27	22.082	28	-1
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,96		1,94		1	1,82		1,80		1	1,82		1,77		3	2,14		2,15		0
BETETZE-MAILA PLAZAKA	59,24		55,26		7	49,59		49,38		0	53,20		46,50		14	69,76		66,73		5
Hiriburua	62,54		56,64		10	53,55		51,62		4	56,29		48,87		15	75,77		69,43		9
Kostaldea	66,49		66,10		1	-		-		-	53,54		54,07		-1	76,54		74,58		3
Barnealdea	49,14		47,20		4	41,25		44,38		-7	45,43		36,17		26	55,78		57,37		-3
BETETZE-MAILA GELAKA	66,40		62,08		7	57,05		57,83		-1	61,67		53,90		14	76,89		73,38		5
Hiriburua	70,20		63,45		11	63,28		62,37		1	64,72		55,93		16	82,51		76,16		8
Kostaldea	70,77		71,45		-1	-		-		-	60,94		60,47		1	78,82		77,59		2
Barnealdea	55,97		54,70		2	42,07		45,71		-8	54,51		44,81		22	64,78		66,29		-2
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	39.469	100	35.069	100	13	4.909	100	4.315	100	14	11.957	100	12.083	100	-1	22.603	100	18.671	100	21
Estatukoak	32.160	81	28.420	81	13	4.305	88	3.926	91	10	8.794	74	9.263	77	-5	19.061	84	15.231	82	25
Atzerrikoak	7.309	19	6.649	19	10	604	12	389	9	55	3.163	26	2.820	23	12	3.542	16	3.440	18	3
BIDAIARIEN SARRERAK	11.956	100	10.699	100	12	1.818	100	1.531	100	19	3.803	100	3.546	100	7	6.335	100	5.622	100	13
Estatukoak	9.983	83	9.082	85	10	1.653	91	1.411	92	17	3.033	80	2.900	82	5	5.297	84	4.771	85	11
Atzerrikoak	1.973	17	1.617	15	22	165	9	120	8	38	770	20	646	18	19	1.038	16	851	15	22
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	3,30		3,28		1	2,70		2,82		-4	3,14		3,41		-8	3,57		3,32		8
BETETZE-MAILA PLAZAKA	47,61		45,76		4	29,11		25,97		12	48,76		51,29		-5	54,45		51,22		6
BETETZE-MAILA GELAKA	50,33		48,62		4	30,99		29,18		6	49,75		53,72		-7	58,76		53,11		11

Iturria: EUSTAT